

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatu nagusiaren 171/2024 Foru Dekretua, azaroaren 25ekoa. Onespena ematea Jone Berriozabal Bóveda Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatu kargutik kentzea, hark hala eskatuta

Diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 153/2023 Foru Dekretuaren bidez, uztailaren 4ko 156/2023 Foru Dekretuak zuzendu zuena, Jone Berriozabal Bóveda izendatu zen Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatu.

2024ko azaroaren 25ean foru diputatu karguari uko egitea aurkeztu dio diputatu nagusiari.

Bat etorri Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak 15.1.d) artikuluan xedatutakoarekin, diputatu nagusiari dagokio foru diputatuak izendatzea eta kargugabetzea eta, hala badagokie, sailen titulartasuna esleitzea.

Horregatik, ahalmen horiez baliatuz, ondoko hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Jone Berriozabal Bóveda Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatu kargutik kentzea, hark hala eskatuta. Eskerrak ematen zaizkio Foru Aldundiarentzat eta Arabako Lurralde Historikoarentzat egindako lanagatik.

Bigarrena. Foru dekretu honek 2024ko azaroaren 26tik aurrera eragingo ditu ondorioak.

Hirugarrena. Foru dekretu honen berri ematea Arabako Batzar Nagusiei, eta ALHAOn argitarata dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 25a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE